



2002/03/25eko prentsa-oharra

JAIO TZEN ESTATISTIKA (JAIE)2001eko hirugarren hiruhilekoa

JAIO TZEN %4,3KO IGOERA 2001EKO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN, AURREKO URTEKO ALDI BERAREN ALDEAN

Urteko metatua 13.101 jaiotzara iristen da

Jaiotzen Estatistikako 2001eko hirugarren hiruhileko horretako datuek 4.412ko jaiotako-kopurua ematen dute Euskal AEn, aurreko urtean baino aldi berean baino %4,3 gehiago, Eustaten datuen arabera. Herrialdeka, Araban 601 haur jaio ziren, 2.257 Bizkaian, eta 1.554 Gipuzkoan.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, erdiak baino gehiago, 2.583 haur (%58,5), lehen seme-alabak izan dira 2001eko hirugarren hiruhilekoan; 1.588 haur (%36) aurretik beste seme edo alabaren bat zegoen familietara iritsi dira, eta 241 (%5,5) hirugarren eta ondorengo seme-alabak dira. Araban, hirugarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEren batez bestekoa baino handiagoa izan da, eta hori herrialde historiko horretan baino ez da gertatu.

Amen ia erdiak 30 eta 34 urte artekoak dira


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere argi eta garbi nagusi dela ikusiko dugu, haien artean gertatu baitira erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, beraren gainetik dagoen taldea dago, 35-39 urte artekoa (%25,9); 25-29ko taldea atzean geratu da, %20,8 ekartzen baititu. Muturreko adineko taldeak, 25 urtetik beherakoak, %5,2 hartzen du; 40 urtetik beherakoak, berriz, %2,7 baino ez.

Ezkontzaz kanpo jaiotakoek guztizkoaren %16,1 hartzen dute, eta ia puntu bat igo dira, 2000ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Arabak baino ez ditu izan Euskal AEren multzoaren gainetik dauden balioak (%18,0). Talde horren amatasuneko adina haurrak eduki dituzten amen multzoarena baino gazteagoa da, zeren ama ezkongabeen %16,4 25 urtetik beherakoa baitziren.

Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-taula

	2001eko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2000ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.412	100,0	4.466	100,0	4.232	100,0
Araba	601	13,6	637	14,3	622	14,7
Bizkaia	2.257	51,2	2.274	50,9	2.098	49,6
Gipuzkoa	1.554	35,2	1.555	34,8	1.512	35,7
Amaren adinaren ara.						
< 25 urte	229	5,2	217	4,9	264	6,2
25 - 29 urte	916	20,8	949	21,2	875	20,7
30 - 34 urte	2.004	45,4	2.112	47,3	1.975	46,7
35 - 39 urte	1.143	25,9	1.069	23,9	1.016	24,0
>= 40	120	2,7	119	2,7	102	2,4
Jaiotza-hurrenketa						
Lehenengoa	2.583	58,5	2.502	56,0	2.462	58,2
Bigarren	1.588	36,0	1.687	37,8	1.536	36,3
Hirugarrena edo gehiago	241	5,5	277	6,2	234	5,5

Iturria: EUSTAT



Iturria: EUSTAT

oinarria 100 = b.b.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganza Zabalo Tel:+34-945-01 75 34 Fax:+34-945-01 75 01 Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--